

Joe Austin, Sinn Fein-go zuzendaritzako kidea eta Belfasteko zinegotzia

«Aste Santurako Armada Belfastetik kanpo izango da»

B

elfast bertakoa da eta 44 urte dauzka. Sinn Feingo batzorde eragilekoa eta zinegotzia izateaz gain, alderdiko zinegotzien koordinatzailea ere bada. 1991tik aurrera Londresko Gobernuua eta Sinn Feinen arteko elkarrizketetan parte hartu du, preso

Lau urtetan Sinn Feinek gobernuarekin mantendu dituen elkarrizketetan aritu zara; nola ikusi duzu Britainia Handiko Gobernuaren jarrera urte horietan zehar?

Gobernuak guregana jo zuen elkarrizketak hasteko eta Ipar Irlanda utzi gura zutela jakinarazi zigun. Baina ez ginenez fio —oraindik ere fidatzen ez garen moduan— elkarrizketa publikoak eskatu genituen. Gobernuak Norvegiara joatea proposatu zigun eta horrela negoziazio prozesuan atzeriko jendeak ere parte hartuko zuela. Guk, ordea, borondatea egonda Ipar Irlandan ere konpon genezakeela. Gobernuarekiko kontaktuak hogeitau urtetan zehar eduki izan ditugu. Eskatutako elkarrizketa publi-

koa datorren hilean hasiko da Ipar Irlandan bertan. Imajina zenbat bizitza salbatuko ziren elkarrizketa prozesu hau lehenago hasi izan balitz.

Emango al dio Sinn Feinek oniritzia Dublinek eta Londresek aurkeztutako eztabaidarako oinarritzko agiriari?

Agirian gobernu britainiarrek egindako aldaketa garrantzitsuak daude. Adibidez, azken urtetan Ipar Irlanda bere ardurapean zegoela defenditu du; orain ardura Dublin eta Londresko gobernuen artean banatzen da, autodeterminazio eskubidea onartzen da eta Europako arduraz ere egiten da berba. Hiru puntuok azken urteotan bultzatu ditugun puntu oso antzekoak dira. Beste puntu batzuk,



«Lehenago hasita, heriotza asko ekidingo genukeen». (Arg.: Letona).

hala ere, ez dira nahikoak.

Zer du, bada, txarra?

Agiriak oso garbi esaten du britainiarrak Ipar Irlandatik

aterako direla, baina prozesu luzean; azkarrago izatea nahiko genuke eta, agiriaren eztabaidaren barruan, hor-



«Presoak ez dira negoziazio puntu gisa erabili behar; konpondu beharrekoa arazo politikoa da». (Arg.: Letona).

tan datza gure lana.

Agiriak, epe luzera, benetan zabaltzen al ditu Irlanda batuaren ateak?

Egiten duzun interpretazioaren arabera lehenago edo geroago izango da, baina funtsean, britainiarrak Irlandatik aterako direla dio.

Agiriak jartzen al du epe edo datarik?

Ez, borondatea baino ez dago, eta ondoren negoziatu egin beharko da. Unionistak, Londresko gobernuaren eurenaldik aldentu denez, prozesua luzatzen saiatuko dira. Guk esaten diegu baietz, ingelesak irten egingo direla eta, euren onerako, beste guztiekin negoziatzea komeni zaiela.

Noizko uste duzu basiko direla Ipar Irlandako alderdi guztien arteko el-

karrizketak?

Lehenbizi Londresko Go-bernua eta alderdien arteko elkarrizketak izango dira, eta hori hilabete barru-edo gertatuko da. Gobernuak, bilerei ekin baino lehen, IRAk armak uztea gura du baina hori ez da gertatuko. Gobernu britainiarra prozesua luzatzen ari da baina gizariek ez dio utziko askoz gehiago luzatzen.

Noiz aterako da Britainia Handiko Armada Ipar Irlandatik?

Aste Santurako Armada Belfastetik kanpo egongo da.

Eta Irlanda osotik?

Sinboloa Belfast da, beraz, gainerako sei konterrietatik Belfastetik atera eta gutxira.

Presoak noizko kalean?

Puntu hau oso garrantzitsua da baina bake prozesu ba-

tean presoak ez dira negozi-
ziazio puntu gisa erabili
behar. Konpondu behar
dena arazo politikoa da, eta
ondoren aterako dira preso
guztiak. Presoena hunkipe-
nez betetako gaia da -go-
bernu britainiarra haiek
erabiltzen saiatu da-, baina
presoek eurek esaten dute
lehenbizi arazo politikoa
konpondu ikusi gura du-
tela, eta gero aterako direla.
**Esaten da 1987an, Adams
eta Hume berba egiten
basi zirenean, mugimen-
du errepublikarrak bo-
rroka armatua uztea
erabakia zuela; egia al
da?**

Urte haietako analisisan argi
ikusten genuen IRAk bo-
rrokan jarraitzeko gaitasuna
izango zuela, baina horrekin
ez genuela irabaziko. 1986an britainiarren inteli-
gentziako dokumentu se-
kretu batek —Glover txos-
tenak— aitortu zuen jada
ezin izango zutela IRA
amaitu. Orduan, gobernuak

paramilitar unionistak IRA
presionatzeko erabili gura
zituen, SDLP ere beren in-
gurura eraman eta gu ba-
kartuta utzi. Orduan guk,
horri guztiari erantzuteko,
fronte abertzalearen estra-
tegiaren ideari ekin genion,
gero Adams-Hume moduan
ezagutu den akordiora hel-
du arte.

**Sinn Feingo kongresuan
sektore batek bake pro-
zesua kritikatu zuen.
Ekar al dezake ondorio
txarrik horrek?**

Kritika egitea bakoitzaren
erantzukizuna da. Kritika
egin behar da baina une oso
arriskutsua bizi dugu eta
kontu handiz ibili beharra
daukagu. Kritika egiten du-
tenek arrazoia dute, baina
horrek ez du esan gura atera
egingo direnik. Prozesu
osoan zehar mugimendu
errepublikarrak batasuna
mantenduko duen esperan-
tza osoa daukat.

XABIER LETONA

“ 1991n guk eskatutako elkarrizketa prozesu publikoa datorren hilean hasiko da Ipar Irlandan